

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1991ko Azaroak 1, 124. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




**IGNASI VILA**  
Hizkuntzalari  
donostiarra  
Katalunian




# Kanposantua

Hilen herria



A R R A S A T E  
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



Jabier

# B

etidaniko ohitura izan da gogorrenak ahulenari eta zaharrenak gazteagoari agintzea. Horretarako, gehienetan norberaren helburuak lortzeko, erabili ohi den neurria indarkeria izaten da.

Etxeko gazteena izateak abantaila asko dituela aspertu arte entzun dugunok

badakigu alde txarrak ere badituela, zeren antzinakoa bait da zaharrenak agindutakoa eta esandakoa bete egin behar dela, baina gazteenak ez dauka nori agindu, gaztea den bitartean behintzat. Ume txiki honek ere baliteke pentsatzea "Eta nik nori aginduko diot, bada? Katuari ala?"

## ITSASKI

arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
Arrasate 79 98 94

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia  
Zelulolipolisiaren  
tratamendua

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

HUETO Doktorea

Eztarria, sudurra,  
belarriak

Ordua eskatzeko: 79 81 11  
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



## ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

**Argitaratzailea:**

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:**

Arrasateko Udala

**Zuzendaria:**

Iñaki Mendiguren

**Erredakzioa:**

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi.

**Publizitatea eta harpidetak:**

Amalia Sanz  
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:**

Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:**

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zeraia,  
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

**Kolaboratzaileak:**

Mikel Irizar, Karnele Zuazubiskar, Juan Martin  
Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,  
Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus  
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza,  
Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés,  
Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu,  
Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA  
taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea,  
Arantxa Ozaeta.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa arduraduna:**

J. L. Arejolaleiba

**Copyright:**

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien  
erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan  
egiten da.

## Veni, vide, video

**P**ekatutxoren bat aitortu behar diot irakurleari, aspaldiontan zaletasun handi bilakatu zaidan pekatu irristakorra, alegia: bideomaniak harrapatu nau. Nolaketasun batez, hain zuzen, izan ere neronek ekoiztu eta filmaturiko pelikulak bait dira gero ikusten ditudanak. Ez naiz oraindik aurretik grabatutako bideokaseteak saldu edota alokatzen dituzten denda horietatik inoiz pasatu. Beraz, irakurleak erraz soma dezake zein den nire ekoizpenaren kalitatea... Hala eta guztiz ere, bost axola, bideo kamerarekin endredatzea bai da zaletasun horretara bultzatu nauen arrazoi bakarra. Arlo tekniko eta, ezpairik gabe, artistikoa erabat zokoratu ditut neure helburuetan. Profesionalek nik baino hobeto egin dezakete lan hori...

Ez dut uste aurreko baieztapen ireki horretan beste munduko zeri azaldu dudunik; zeinek ez du, bizitzen ari garen gizarte sasiaurrerakoi eta abiadura handiko honetan bideoaren erakarpena sekula santan bere erraietan nabaritu? Jaso beza atzamarra! Beraz, pekatu kolektibo baten partaide naizela iruditzen zait. Azpikontzientearen joko maltzurrera makurtuta, azken hamabost urteotan errege-mailara jaso dugun aparailuaren entronizazioa zeharo burutua du gizarteak.

Orain dela hamabost urte azaldu ziren merkatura lehen kamera astun eta harrigarri haiek. Denboraren poderioz, haiek pisua galduz joan diren heinean guri harridurarako ahalmena agortu zaigu; izan ere, gero eta arinago eta konplikatugoak ari bait dira merkaturatzen, non amai daitekeen asma ezin dezakegun lasterketa teknologikoan. Zortzi bat kilokoak izatetik seiheun gramo pisatzera igaro dira; irudi eta soinua grabagailu desberdinetan jaso behar izatetik memoria konpaktoaren diseinuetara egin da salto. Kamera fabrikatzaileek ez dute gizakiaren megalomania ahaztu eta azken modeloek "zine-funtzioak" dei genitzakeen zerbitzuak ere eskaintzen dituzte. Ilusio hutsa, noski, baina azken finean irudimenaren bideetatik gora igotzen laguntzen duen tranpatxoa.

Mundu guztiko telebistek etxe-bideoen fenomenoari hainbeste arreta eskaintzen dioten une hauetan, gure planeta zahar eta gaixo hau ez ote garen bideo erraldoi bat bilakatzeko ari galdetzen diot neure buruari. Dudarik gabe, bizio honek igande arratsalde euritsuak eramangarriagoak egiten dizkit.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

comercial  
san juan

Garibal, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

LILURA

zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta, 5 etxabea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



**gili gili**

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



**Liburu eta oparidenda**

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**ARAMAIO**  
**okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46

**IZAGIRRE**  
*barategia*

Bañez Dk., 18 ARRASATE  
Tfnoa: 79 59 86

• **Txitxinpe** •

**Berezitasunak:**  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealokua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde, 23-2. Ezk.  
ARRASATE Tfnoa: 79 96 90

**Pena merezi du!**

Paradojiko bada ere, eta gure gizartean irakaskuntzak afektatuta bagaude ere, irakaskuntza ez da guztiok edozein lekutan erabiltzen dugun gaia. Ezta hurrik ere. Irakaskuntzaz ez da politikaz edo giza arazoez beste edo moduan berba egiten. Izan ere, nor mintzatzen da honetaz? Hezkuntzako politikoak, kongresistak... Non dira irakasle, guraso, zuzendari, ikasle, kontseilu eskolar, apartazio ekonomikoen egile, etab.en ahotsak?

Ni azken multzo honetakoa naiz eta kontatu nahi dudanak pena merezi duelakoan nago bibentzia batez arituko naizelako.

Berez, kurtso-hasiera ilusio handiz espero izaten da. Nire kasuan, ilusio hau eskola estreinatzeke ekintzaz betetako geneukan asteak indartzen zuen. Hala espero eta hala izan: ezerk huts egin barik eman genion hasiera distiratsua ikasturteari... Aste guztian zehar engranje hobe ezinean murgildu ginen guraso, irakasle, ikasle eta hamaika herritar. Baina ostiralak beretz aste horren amaiera ezezik, gure Keparen agurra ere ekarri zuen (irailak 22an Takolon istripuz hil zen 8. mailako ikaslearena). Zein gogorra! Taldearentzat zein deskontzertua!

Ordura arte dena poza eta jaia, eta bapatean dena iluntasuna eta tristura.

Guzti honetatik osatzeko astirik barik, iaztik zintzilik geneukan bidaia bati hasiera eman behar. Urriak 7an Eskola Ibiltariak izeneko bidaiari ekin behar izan genion. Cordoba, Asturias eta Aretxabaletako ikasle-taldeak (14 urtekoak) bakoitza bere irakaslearekin Valentzian elkartu ginen zortzi egunez Komunitate hura ezagutzeko.

Bitarteko guztiak prest zeuden (garraioa, albergea...), baina zelakoa izango ote zen elkarbizitza? Zelako zalantza! Zelan irtengo hango egoeretatik eta, hango aholku eman beharra! Hongo kontrolatu beharra!

Baina usteak ustel! Zeharo emozionatu ninduen umeak naturaltasunez elkarri egin zioten harrerak. Lagunartekotasun hau sendotu egin zen egunaren kabuan dena konpartitu behar izaten zelako eta konpartitu behar zen horrek helburu zehatza zuelako.

Egoera bikaina izan zen eguneroko errutinan ikusten ez diren pertsona-alderdiak ezagutzeko: jende ezezaguna tratatzeko era, beren artean harremanak sortzeko samurtasuna, autonomia, disfrutatzeko kapazitatea, talde-erreferentziak zaintzeko zentzuna... pena merezi izan zuen!

Oraingo honetan ni neu ari naiz esperientzia honen balorapena egiten eta hezitzaile moduan eman dizkidan bitaminengatik bakarrik, pena merezi izan duela esan dezaket.

Gaur den egunean plataforma batetik irakaskuntzaren arazoak iristen dira komunikabideetara eta beste plataformatik hasperen tartean ilusio-eza, nekea eta asperdura salatzen dituzten komentarioak.

Baina ez, hori ez da guztia. Kontaketa hau ere, oso bestelakoa izanik, adibide bat baino ez bada ere, izan da.

Errutinari uko eginez eta norberaren konbentzimendua taldeak eman dezakeenaz konpartituz egiten diren esperientziak, irakaskuntzak dituen protagonisten giza garapenerako beharrezkoak dira.

Pena merezi du!

*Resu Abasolo.  
(Aretxabaleta)*

**BAKAILO ETXEA**

Makailoa eta beroni buruzko produktuak

Makailoa, kroketak eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones, 7 (Azoka ondoan) ARRASATE Tfnoa: 79 93 07

# Heriotzaren ostean, zer?



**Juan Antonio Gimbert**  
(Margolaria)

Ez dakit zer dagoen heriotza ondoren; egia esan, ez dakit. Eta nire gorputzarekin nahi dutena egitea daukate, berdin zait.




**Dolores Velasco**  
(Jubilatua)

Beti kontatu izan digutena, zerua eta infernua dagoela. Nik, beti bezala, nahiago dut lurperatzea.




**Mila Ortiz de Mendibil**  
(Postaria)

Nik uste dut zerbait badagoela, baina ohituraz, beti entzun izan dugulako. Nik nire gorputza erretzea nahi dut, eta ez kanposantuan sartzea; errautsekin nahi dutena egin dezakete.



**Jose Felix Agirre**  
(Langabetua)

Nik uste dut hil eta gero ez dagoela ezer. Nire gorputzarekin berdin zait zer egingen duten, lurperatu, erre edo itsasora botatzea nahi badute ere.



**Simon Urizar**  
(Jubilatua)

Ez dut ezer pentsatzen, hil ondoren ez bait dago ezer. Hil ondoren nire gorputzarekin zer egin, gelditzen direnek erabaki beharko dute, baina uste dut lurperatzea nahiago dudala.



**Amaia Arroyo**  
(Ikaslea)

Uste dut hil ondoren ez dagoela ezer. Lurperatzea nahiko nuke.

## BERRIRO ERE...

**Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkitu duzue salmenta onean**



**Cercas bajas, 34 GASTEIZ**

I  
R  
A  
T  
I

**Ferrerias kalea**  
**Tfnoa: 79 71 80**

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

### DYA

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

### ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

### ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak .....	45 87 44
------------------------------	----------

### UDALTAINGOAK

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

### ERTZAINZA

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

### SUHILTAILEAK

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

### MATXURAK

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

### GARRAIOAK


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

### HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

### KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77
--	----------



31

## OSTEGUNA

- Zinea: Alai: "Este chico es un diablo" (7-10).
- Manifestaldia, "Akordioari bai" lemapean, Sebero Altuben arratsaldeko 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

1

## OSTIRALA

- Domusantu-Eguna.
- Zinea: Alai: "Este chico es un diablo" (5-7.30-10).
- Domun Santu eguna.
- Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketa Aretxabaletako Zaria zineman, goizeko 11.30etatik aurrera.
- Iñaki Bruñasen erakusketaren hasiera, Monterronen.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santam. Gaez: Mozos, Bergara.

2

## LARUNBATA

- Zinea: Alai: "El gran halcón" (5-7.30-10)
- Goardiako farmazia: Egunez: A. Ruiz, Maala. Gaez: Camacho, Bergara.

3

## IGANDEA

- Zinea: Alai: "El gran halcón" (5-7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, S. Andres. Gaez: Camacho, Bergara.

4

## ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "El gran halcón" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gaez: Puy, Bergara.

5

## ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "El gran halcón" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz. Gaez: Guallar, Bergara.

6

## ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musak. Gaez: Estella, Bergara.

7

## OSTEGUNA

- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gaez: Camacho, Bergara.

## Kirol Agenda

### Pilota

### Saskibaloia

- Larunbat arratsaldean, 6etatik aurrera, Musakolan emakumezkoen Centraljet Euskal Air eta Lestonnac taldeen arteko partidua.

### Eskubaloia

- Igandean, eguerdiko hamabietan, Arrasate Kirolak - Jauja, Musakolako kiroldegian.

### Futbola

- Ostiralean, goizeko 11etan, Arrasate-Bergara Iturripen .
- Larunbatean, goizeko 11etan, Arrasate-Zumarraga Iturripen.
- Igandean, goizeko 11etan, Arrasate-Elgeta Iturripen .
- Igandean, arratsaldeko 4etatik aurrera, Mondra eta Azpeitiako Lagun Onak taldeen arteko partidua Atxabalpen .

## Erakusketak

### • Pintura eta Argazkiak

Azaroaren 1ean hasi eta 10era arte, Monterroneko erakustokian Iñaki Bruñaren erakusketa izango da. Argazki nahiz koadroetan, Iñaki Bruñak gai desberdinak erabiliko ditu eta adierazi zuenez, zailtasun handiena erakusketari jarraikortasun bat ematen izango omen du.



Iñaki Bruñak egindako hogeiren bat argazki ikusteko aukera izango da, gehienak zuri-beltzean, baina batzuk akuarelaz pintatuak; bakarren bat koloretakoa jartzeko asmoa ere badu. Koadroei dagokienez, hogeitabost inguru izango dira, abstraktuak, paisaia, bodegoiak, etab. Ikus daitekeenez, oso gai desberdinak erabiltzen ditu Iñaki Bruñak. Ohi bezala, erakustaldia goiz eta arratsaldean izango da zabalik.

## Ikastaroak

### • Ikastaro ezberdinak

Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentruak hainbat ikastaro antolatu ditu. *Zeramika edo buztzingintza*ko ikastaroa urriaren 31an hasiko da eta ostegun arratsaldetan sei t'erdietatik bederatzietara izango da. *Gazteentzako Sexualitate-Hezikuntza*ko ikastaroa, Udaleko Gazte Zerbitzuaren diru laguntzaz antolatu da eta aurreko ikastaroari bezala urriaren 31an emango zaio hasiera eta oste-

## BERTSOLARIAK

### Gipuzkoako Bertsolari-Txapelketa

Azaroaren 1ean, ostirala, Aretxabaletako Zاراia zineman goizeko 11.30etan Gipuzkoako bertsolari-txapelketako kanporaketa-saioterako bat burutuko da. J.M<sup>a</sup> Izeta, A. Peñagarikano, "Attola-Berri", Arantzazu Loidi, "Lizarreta", A. Etxebeste, "Ziarda" eta J. Munduatek hartuko dute parte. Zortziko handia, puntua eta oinak emanda, zortziko txikia eta gartzelako gaia izango dira bertsolariek bete beharko duten lana. Fase honetan, bost taldeetan banatuta daude, talde bakoitzetik hiru pasatuko dira azken laurdenetara eta gainerakoetatik puntu gehien lortu dituzten beste bostak sailkatuko dira. Bertsolari guzti hauen artean bertako bat dago, Arantzazu Loidi. Etxean dagoenez, giroa bere alde izango du, dudarik gabe. Hori bai, seguruenik inoiz baino urduriago izango da. Ea zorte onà duen!

gunetan sei t'erdietatik zortzi t'erdietara izango da. *Sukaldaritza eta gozogintza*ko ikastaroa urriaren 30ean hasiko da eta asteazkenetan sei t'erdietatik zortzi t'erdietara burutuko. Azkenik, Eskulan-Ikastaroa (tarazeak, errusiar porzelana, esmalteak, hirudimentsionala) azaroaren 9an hasiko da eta asteazkenetan sei t'erdietatik



bederatzietara egingo da.

Informazio gehiagorako 79 04 59 telefonora deitu edo Zentrua bertara, Sta. Teresa kaleko 12ra joan daiteke, arratsaldeko hiru t'erdietatik aurrera.

### • Marrazki eta Pintura

Kultur-batzordeak antolaturik, datorren hilaren 13tik aurrera Monterronen Marrazki eta Pintura ikastaroa egiteko aukera izango da. César Cimiano izango da irakaslea eta taldeetan gehienez hogeitaz pertsona izango dira. Matrikula-epena zabalik dago, azaroaren 4tik 7ra bitartean, arratsaldeko 5etatik 6etara Monterroneko ganbaran. Izena ematerakoan 10.000 PTA ordaindu beharko dira.

Informazio zabalagoa eskuratu nahi duenak, Udaletxeko Kultur-Batzordera dei dezake, 79 09 00 zenbakira.

## Antzerkia

### • Txotxongiloak

Azaroaren 4ean hasi eta abenduaren 2ra arte, Arrasateko umeek txotxongilo-emanaldi ugari ikusteko aukera izango dute. Izan ere, herriko ikastetxe eta Udalaren artean txotxongilo-emanaldi sorta antolatu dute. "Txotxongilo" "Bihar" eta "Gorakada" taldeak, ikastetxez ikastetxe ibiliko dira.

Txotxongilo-emanaldie "Gorakada" taldeak emango die hasiera, azaroaren 8ra arte "Atxis Pun" lanaren hainbat antzezpen eskainiko dituelarik. Lan honek 50 minutuko iraupena du, eta 4 eta 10 urte bitarteko umeentzat da. Beraz, "Atxis Pun" lana aste honetan, honako tokietan emango da:

- Azaroak 4, Erguin Eskolan, goizeko 10.30etan. San Andres Eskolan, arratsaldeko 3.30etan.

- Azaroak 5, San Viator Ikastolan, goizeko 10.30etan eta arratsaldeko 3.30etan.

- Azaroak 6, Merced Ikastetxean, goizeko 10.30etan eta arratsaldeko 3.30etan.

- Azaroak 7, San Frantzisko Xabier Ikastolan, goizeko 10.30etan eta arratsaldeko 3.30etan.

- Azaroak 8, Musakola Eskolan, goizeko 10.30etan.

## Kontzertua

### • UFO taldea Txibiston

Larunbatean, azaroaren 2an, Txibiston UFO taldearen kontzertua izango da, gaueko 11etatik aurrera. Sarrerak aurrez erosiz gero, 2.000 PTA eta takilan 2.300.

“.....  
Tabernetako giroa, zona txiki batzuk salbu, guztiz erdalduna da. Koadrila gehienek erdaraz egiten dute berba”.

Karmele Izazelaia (Udaletxeko langilea)

“.....  
Gazteek eskura eduki behar dute euskara, eta hori ematen ez den bitartean alferrikako sermoiak egiten ari gara”.

Jon Iñaki Izarzelai (Bertsolaria)

“.....  
Badago edade bat, hamalau urte inguruan, gauza guztien aurka joan beharrekoa, eta euskara ez da kanpo geratzen”.

Josune Biteri (Langabetua)

“.....  
Rock musika euskalduna egun guztiz sustraiturik dago, baina hemen gazteleraz abesten jarraitzen dute gehienek”.

Patxi Montero (SS-77ko abeslaria)

“.....  
Ezin esan daiteke Arrasateko giroak euskara ikastera bultzatzen zaituela, inizatibak pertsonala izan behar du”.

Javier Casado (Euskaldunberria)

(EGUNKARIAko ale berezian 1991-X-25)

Zer da Lizarra Elkar-  
tea?

1989.ean, San Andreseko parrokian drogarri buruzko hitzaldi-sorta antolatu zen, eta handik sortu zen Lizarra Elkar-  
tea. Elkar-  
tearen lehen lana, Udalari drogaren aurkako borrokan parte hartzeko konpromezua eskatzea izan zen. Erantzuna, gaur egungo Drogomenpekotasunen aurkako Zerbitzua izan zen. Udal-Zerbitzuak prebentzio-mailan lan egiten duen moduan, Lizarra Elkar-  
teak drogazale eta beraien familiei laguntza eta orientabideak eman beharra ikusten zuen, ondorioz aurtengo martxoan zerbitzu hau martxan jarri eta garatzeko tramiteak egin zituen. Ikus daitekeen-  
ez, Udal-Zerbitzua eta Lizarra Elkar-  
tea osagarriak dira. Elkar-  
teak, guraso eta familiarrentzat terapia-talde bat antolatzeaz gain, hitzaldi ugari antolatu ditu Arrasaten.

Aipatutako Zerbitzuaren helburuak hauek dira:

— Ezarritako ordutegian atentzio pertsonala edo telefonikoa.

— Drogazaleen errehabilitazio edo bergizarteratzea helburu duten beste zerbitzu batzuekiko harremanak.

— Drogazaleen familiarrak orientatu eta bideratzea, autolaguntzako taldeetan sar daitezen.

— Drogazaleohia behin-betirako bergizarteratzeko bideen programazioa eta gestioa.

Bukatu aurretik, aipatu nahi nuke toxikomano-ohia bergizarteratzeko lanetan instituzio publikoek zer egin handia dutela Lantegi-Eskolak sortzen. Gaur egun, Arrasaten Lantegi-Eskola bat dugu, baina desagertzeko arriskuaz.

JOSE MIGUEL VEGA,  
LIZARRA ELKARTEKO ARDURADUNA.



GORROSTI  
Jatetxea  
Arimazuri plaza. ARRASATE Tfnoa: 77 06 07

ESTUDIO  
INTERIORISMO  
• Proiektuak  
• Diseinuak  
• Obra-Zuzendaritza  
• Berrikuntzak  
• Erakusleihen  
eraketa  
(Eskaparatismoa)  
• Anagramak  
Garibal, 3 bis  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 01 44





Luzdivino Garciaen familiak prentsaurrekoa eskaini zuen Oñatin.

## Heriotza eztabaidatsua

### Hildako baten familiak Eskualde-Ospitalea salatu du

Joan zen otsailaren 22an Gasteizeko Txagorritxu ospitalean hildako Luzdivino Garcia Bernalen familiak Urriaren 29an Oñatin prentsaurrekoa eman zuen. Bertan izan ziren hildakoaren aita, Luzdivino Garcia Garcia; emaztea, Maria Sainz; Jose Antonio Sanchez, familiako bozeramalea eta Jose Evaristo Rodriguez, abokatua. Prentsaurrekoan adierazi zuten, joan zen otsailaren 21ean Luzdivino Garcia Bernal, 33 urtekoa, ezkondua eta bi seme-alabaren aita, Arrasateko ospitalera ekarri zuten fistula bat kentzeko. Normalean ebake-

ta honek 15 minutu inguru irauten badu ere, egun horretan goizeko 9etan hasi eta eguerdiko 12.30etan gaixoa lehenbailehen Gasteizera eraman beharra zegoela adierazi zuten medikuek. Ordu t'erdi itxaron behar izan zuten ambulantiaren zain eta Txagorritxura heldu orduko klinikoki hilda zegoen. Luzdivino Garcia hurrengo egunean hil zen, bihotza gelditu eta gero.

Familiakoek azaldu zuten, badi-rudi bere heriotza Arrasateko ospitalean anestesia ematerakoan egindako hutsen ondorioz gertatu zela.

#### Ikastoletako greba


Ikastolek konbenioaren arazoetatik grebarako deialdia egin zuten urriaren 30ean. San Fantzisko Xabierren eta Umezaintzan grebaren aldeko jarrera hartu zuten. San Viator eta Almenen, berriz, asanblada eta botazioa egin ondoren, lan egitea erabaki zuten; Almeneko kasuan, boto bakar baten aldekoa egon zen.

#### 1991-92 ikasturterako matrikulaketa Eskoriatzan

Aurtengo ikasturtean, Eskoriatzako ikastetxe ezberdinetan eskolaurrean eta OHoko 1go mailan matrikulatu direnen kopurua honako hau da: *Almenen* OHoko 1go mailan 23 ikasle. *Luis Ezeizan* eskolaurrean 45 eta OHon, B ereduan, 20. *Jose Aranan* eskolaurrean 63 matrikulatu dira.

#### Dirulaguntzak

Joan den asteleheneko Gobernu-Batzordean hainbat dirulaguntza onartu ziren. Alde batetik, Erdu Euskaltegiari 695.000 PTA; bestetik, "Deba Garaia gure eskualdea" ikasunitatea egiteko 739.000 PTA eta Nafarroako Paz Ziganda ikastolari 61.000 PTA ematea onartu zen. Ikastetxe guztietako zortzigarren mailako ikasleentzat Astronomi Ihardunaldiak antolatzeke gehenez 285.000 PTA ematea erabaki zuten. Bestetik, urtean zehar ere eskolatan 27 antzerki-emanaldi antolatzeke 1.309.000 PTA emango dira.



# EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrial

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal Inprimakiak
- Bulegoko materiala

## zeppelin



Loramendi, 3 etxabea  
ARRASATE Tfnoa: 79 74 09

Carrión  
música, s.a.

- PIANOAK: Yamaha, Kawai, Rameau, Samick, Astor. (Prezio bereziak)
- MUSIKA-TRESNA ELEKTRONIKOAK: Yamaha, Roland, Korg, Casio, etab.
- EKIPO PROFESIONALAK

M. Iradier, 20 GASTEIZ Tfnoa: (945) 23 07 49

## Bailarakako bertsolariak Txapelketan

Igande goizez izan zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren 2. saioa Deban. Tartearen genuen txapelketa honetara aurkeztu diren hiru leinztarretatik bat: Aitor Sarasua.

Antzuolako saioaren antzeratsu, orokorrean maila handirik ez zen nabarmendu bertsolarien lanean. Nagusietan Igartzabal izan zen bere bertsolari klasikoan oinarrituta defenditzeko adina egin zuena; eta gazteetan, berriz, Bernardo Azpillaga errezildarra segurtasunez jardun zuen bakarrenetarikoa.

Aitor Sarasuak ez zuen zorte handirik izan; hasieran nahiko lasai ekin zion baina bukaerarako urduritu eta hiru "lapsus linguae" atara zitzaizkion; nerbioen kontua, jakina!

Epaimahaiak 400 puntutik gora eman zizkion Aitorren lanari, egokien borobildutakoa oinak emandako bertsoa izan zelarik. Puntuazio orokorrean, Aitor bostgarrena dugu, Bittor Agirreren ondorengo puntu bakar batera. Hasiara baten Igartzabal, B. Azpillaga eta Uztapide II.a dira aurrerako bidea zabalik daukatenak, baina nork daki! Behar bada Aitorrek ez du aukera guztiz galdua izango saio denetan lehenbiziko hiruak ezik, denak orokorrean hartuta beste bost hartuko dituzte eta.

Hala gertatzen ez bada ere, mutila lasai dago eta umorea galdu barik. Ez digu behintzat dena utziko duen barbarik aipatu. Ea bada, azaroak 1-ean, goizeko 11.30etan Arantzazu Loidik Aitorrek baino parada hobea izaten duen. Saioa Aretxabaletako zineman izango dugu eta denok izango gara txalotzeko prest. Aupa neska!!

# Txandaka

## AZKAR PIZTITXOAK


Udaberrian jaiotako kume ederak mundua ezagutzen ari dira, haizearen hozkirria eta euri osteko lur-usaina gozatzen. Atzo amarekin jolasean, gaur, urriak 12, non ezkutatu asmatu ezinda; zapaltzaileak iritsi dira, milaka ehiztari mendian hara eta hona, eskupetak hustu nahian. Begira-puntutik beren barrenean erreprimitu duten bizitza bera dakusate (osasuntsua, berezkoa, kalterik gabekoa...).

Estatuan 1.200.000 ehiztari, Gipuzkoan 30.000. Zorionez, ugariago gara abereak bizirik, aske eta pakean ikustea maite dugunok, inoiz tirokatuko ez ditugunak; gero eta ugariago, gainera. Behar bada egunen batean lortuko dugu mehatxupean bizi den espeziea ehiztariena izatea.

Erakunde eta ehiztarien artean idatzitako Ehiza-Legea motz gelditzen da, argi dago ez dela inola ere baliagarria.

A zer adar-jotzailak Euskal Herriko faunaren egoera ezagututa, ehizak oreka ekologikoa mantentzen duela diotenak!

Aspaldiko ohitura eta lanbidea dela diote: "Gure arbasoak ehizta-



riak ziren". Bai, jan-bizi beharrez edo ezinbestean, baina baso zein animaliak maitatu eta errespetatu. Gaur egun ez. Egundulterezina da ehizan egitea animalien egoera tamalgarria ikusita.

Hegazti eta arrainen birpoblaketak egiten dituztela esanez ba-


besten dira. Onartezina da, ordea, birpoblatu eta hiltzen jarraitzea. Erakundeak dira ikerketa sakon bat egin eta arazo honi aurre egin beharke lioketenak.

Ehiza, gizaki askoren beste portaera eta ohitura tamalgarri bat; posible ote da jende horri pentsarazi eta beste aukera bat hartzera bultzatzea?

Ekologia aldarrikatzea ez da txori eta zuhaitzez arduratzeaz betetzen, planeta honetako osagai bat garela konturatu, eta ingurune eta inguruko izaki eta espezieak errespetuz zaintzean datza. Hortxe dago kokxa, pentsakera asko moldatu beharra dago.

Inguruko talde ekologista eta mendizaleak gogor arituko gara honelako sarraskiak egiteari uzten ez dioten bitartean.

AMILOTX, MENDIA BIZIRIK,  
TXANTXANGORRI, EKI, EGUZKI




**ERRASTI KRISTALDEGIA**  
**Plastiko eta burdinazko hodiak**  
**beirina eta kristalak**  
**akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

**Osorik**  
**pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate



Hiztegia Irakasle Eskolaren Ihardun argitaletxeak egin du

## Irakasle Eskolako Hiztegia

*Bi urte pasatu ondoren egiten, Durangon aurkeztuko da*

Lerro hauek argia ikusten dutenerako, Irakasle Eskolak Durangoko Euskal Liburu eta Diskoaren Azokan argitaratzeko asmoa duen hiztegiaren orijinala Bartzelonako inprenta batean izango da.

Ume nahiz helduentzat baliogarri izan zitekeen hiztegia egiteko ideia, duela bi urte sortu zen Irakasle Eskolaren baitan.

Beti ere, tratamendu pedagogiko egokia eman nahirik, hiztegiaren bi egileak Xabier Mendiguren eta Julia Marin izan dira, Iñigo Ramirezen koordinaziopean. Koordinatzaileak zioenez, lana hasieran pentsatu baino sakonagoa suertatu zaie, baina emaitzarekin gustora gelditu omen dira. Zentzu horretan, moldeak apurtzen dituen hiztegia dela zioen Iñigo Ramirezek, "oso grafikoa eta ulergarria delako, baita hizkuntza arrunta erabiliz ere".

Hiztegian, gutxi gorabehera 10.000

hitz desberdin jasotzen dira, esanahi bakoitzaren adibide ugari ageri direlarik eta gainera sinonimo askorekin. Zailak gerta daitezkeen hitzen esanahia agertzeko marrazkiak ere erabili dira, 1.050en bat. Hiztegiaren azken aldera, koloretako hamazazpi lamina daude, lanbideak, gorputza, abereak, landareak, geometria... eta beste hainbat gai azaltzeko.

Printzipioz, Irakasle Eskolakoek hiztegiaren 5.000 ale ateratzeko asmoa dute eta salneurria gutxi gorabehera 3.000 PTAKoa izango da. Aterako diren aleak asko badirudite ere, egileek ondo salduko direlakoan daude, lehen ere ikastetxe ugarirekin harreman handiak izan dituztelako bertako Ihardun editorialak egindako beste lan batzuen argitalpenengatik. Bukatzeko, aipagarria izan daiteke hiztegia Bartzelonan inprimatzea eta ez Euskal Herrian, Katalunian koeditatutakoa bait da.

## Usteak uste

Sorgin kaletik gora, Biona taberna pasa eta ezkeraldera errekuperatu berria den espazioa ikus daiteke, karkaba bat. Etxeetako hondakin fisiologikoak jaurtitzeko erabiltzen zen kale arteko kaletxo hauek erakutsi eta Arrasateko Hirigune Zaharra berreskuratzeko ahaleginetan, udalak PERI delakoa garatzeari ekin dio, laster batean Erdiko kaleko goikaldean beste karkaba bat jarriko delarik agerian.

Bizi dugun XX. mendeko gizartean leku horik erabilera orijinalarekin zerikusirik izan ez dezaten, hau da, gaur egun txis-leku bihur ez daitezen, gartzela-itxura ematen diete.

Kontua da, hesiaz bestaldera igarotzerik ez dagoela eta antza, udalak ez dio kale garbitzaileen enpresari zerrailaren giltzaren kopia eman, Sorgin kaleko karkaba-gartzela zikinkerituri agortezina bihurtu da eta.

Aurrerantzean ez al da horrelakorik gertatuko!!

JON GARAY

**LEZARAN**


**MARKO-JARTZEAK • LAMINAK • MARGOAK**

**Biteri Etorbidea, 11 ARRASATE**




**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Urriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39




**Beheko sel denda horletakoren batean erosketak egitean, bi sarri bikain hauek zeureganatzeko aukera izango duzu, urtarrilaren 14ean ARRASATE PRESSen egindako zozketan parte hartuz.**


**Kanaria  
Irletara bi  
lagunentzako  
bidaia.**



**Renault Clio 1.1 CL (F. F.)**



Iturriotz kalea, 8 ARRASATE  
Tfnoa: 77 04 01




SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 20



Maalako Errabala, 5 ARRASATE  
Tfnoa: 79 19 25

# Fototrukkoa



Argazkikoa nor den esanez, bidali beheko txartela azaroaren 6a baino lehen ARRASATE PRESSera (Azoka Kalea, 1) eta aste honetan IKATZ etxeak oparitzen duen RICOH S-30 argazki-makina eskuratzeko zozketan sartuko zara.

## ERANTZUNA

Nor da aste honetako pertsonaia?

Izena: .....

Abizena: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

Tfnoa: .....



**KATAIDE**  
ARRASATE

Kataide Poligonoa. ARRASATE  
Tfnoa: 79 60 10



Maala Errabala, 13 ARRASATE  
Tfnoa: 79 92 76



**J. Markiegi**  
**JANTZIDENDA**

Olarte, 2 ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 32

**□ Larreako Etxebizitzak**

Larrean egin behar diren etxebizitzetan sartzeko aukera izan dutenek, dagoeneko lehen ordainketa egin beharko dute. Ordainketa hori, hain zuzen, milioi t'erdi pezetakoa izango da eta Iturriotz Kaleko Lan Kide Aurrezkian egin daiteke.

**□ Ikastolari Ferixalekuko edifizioa utzi**

San Frantzisko Xabier Ikastolari Ferixalekuko eraikina lagatzea onartu da. Orain arte Udaletxe zaharrean dauden umeak, beraz, Ferixalekuko lokale-tara joango dira.

**□ Manifestaldia Arrasaten**

Lurralde Koordinadorak antolatuta, ostegunean, hilak 31, Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala "Akordioari bai" lemapean manifestaldia burutuko da Arrasaten. Manifestaldiari arratsaldeko 7.30etan emango zaio hasiera, Sebero Altuben.



Bergaran eskualde-mailako manifestaldia burutuko da gaur

## 25 intsumisotik gora Arrasaten

### 97 gazte arrasatear sartuko dira igandeko zozketan

Igandean, azaroak 3, Estatu osoan soldaduzkarako zozketa burutuko da. Zozketa horretan, 97 gazte arrasatear ere sartuko dira. Aipatutako kopuru horretatik lauk, intsumiso-jarrera azaldu zuten pasa den asteazkenean Donostiako epailearen aurrean.

Azken lau intsumiso horiek kontuan hartzen badira, Arrasaten dagoeneko 25 baino gehiago dira intsumisioaren jarrera hartu duten gazteak. Azken aldean, herrian soldaduzkaren aurkako mugimendua indartu egin da eta gero

eta gazte gehiago agertzen dira intsumiso.

Jarrerak alde batera, Kakitzat antimilitarista-taldeak ikasleen borroka-egun izendatu zuen urriaren 31a. Greba egiteaz gain, goizeko 11.30etan Sebero Altubetik abiatuta manifestaldia egiteko asmoa zegoen. Iluntzeko 8etan, berriz, eskualde-mailako manifestaldia antolatu da Bergaran. Mobilizazioetarako azken deialdia iganderako egiten da, Donostian eguerdiko 12.30etan Boulevardean.

**ZORIONAK EZKONBERRIEI**

Rafalel Gutierrez & Isabel Gallastegi. Urriaren 19an. Elizez.  
Federico Aranbarri & Karmentxu Zuazubiskar. 26an. Elizez.

**ONGIETORRIA JAIÖBERRIEI**

Uranga Sanchez, Jokin. Urriaren 18an.  
Balanzategi Gonzalez Asier. 19an.  
Ugarte Ijorra, Jone. 21ean.  
Sancho Casatorre, Sandra. 18an.



**AZTERKETA ETA PROGRAMAZIOA**

**SOFT VITORIA**

**INFORMATIKA-IRTENBIDEAK**

**Enpresa-gestioaren inguruko informatika-irtenbideak**

**Honako hauentzako irtenbideak: Monopostuak (DOS)  
Multipostuak (UNIX)  
Sare lokalak (NOVELL)**

**IRTENBIDE STANDARRAK ETA NEURRIRA EGINDAKO PROGRAMAZIOA.**

**Informazio gehiago nahi izanez gero, dei lezaguzu.**

Manuel Iradier, 9  
01006 GASTEIZ

Tfnoa: 945 - 13 08 64  
Faxe: 23 20 21

**beatriz**


**oinetakoak eta poltsak**

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

**Monte  
taberna**

Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56

**Izen**  
**PROPIOAK**



◀ Fagorrek **Gabonetako txartelen bigarren lehiaketa** antolatu


zuen. Txartel guztietatik hiru saritu dituzte, honako haue-  
txenak alegia: Arantza Gomez  
Ugalde gasteiztarra eta 16  
urtekoa, Saioa  
Elordui-Zapatarietxe del  
Aguila aretxabaletarra eta 12  
urtekoa eta Nerea Iñurrategi  
Iglesias eskoriatzarra eta 7  
urtekoa.

● **Cesar Cimlano**, 25 urtekoa. Leioan Arte Ederrak ikasia Monterronen ematen diren pintura-ikastaroak zuzenduko ditu. Asteazken, ostegun eta ostiraletan, 5etatik 8etara eta larunbatetan 10etatik 1etara, aurrez matrikulatutako ikasleei emango dizkie klaseak.

● **Susana Martin**, 15 urteko arrasatearra, Eskola Profesionalean REM 2. ikasten ari da. *Tamayo Papel*-ek Diario Vascoren laguntzarekin antolatu zuen "El arte de la escritura" lehiaketan parte hartu zuen eta bederatzita mila lagunaren artean 13 eta 17 urteko modalitatean irabazlea izan da.

● **Sabin Salaberri**, 57 urtekoa, aramaioarra, Gasteizeko Jesus Guridi Musika-Konserbategiko zuzendari izendatu dute. Sabin Salaberri, armonia eta piano-ikasketak eginda dauzka. Urte askotan, orain zuzendari izendatu duten toki berean musika irakasten egoteaz gain, Araba Abesbatzaren partaide izan da.

Joan zen igande goizean, Arlabanen **hegaztiei ongietorria** eta ehizaren aurka protesta egiteko ehun bat pertsona bildu ziren. Euripean, baina lasai burutu zen martxa; bestalde, eguraldia zela eta ezin izan zuten hegaztiak uxatzeko megafonia erabili. Ehiztariekin ere ez zen arazorik izan. ▶



**ASAGABASTER**


**JANTZIDENDA**

**Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Astearte honetan *Emakundek* antolatu duen **berdintasunerako plangintza** kanpainaren bulego mugikorra Arrasaten izan dugu. Bulego mugikorra goizeko 10.30etatik 1.30etara eta arratsaldez 4etatik 8etara egon zen Biteri Etorbidean. Hitzaldiak 3.30etan hasi eta 7ak arte Udaletxeko pleno aretoan eman ziren.




**Jose Luis Aranburuzabalak** joan den astean Poliporo Frondosoa aurkitu zuen inguru berean, beste perretxiko izugarri bat jaso du, baina joan den astekoa baino askoz handiagoa, 25 kilokoa hain zuzen ere. Jateko onak direnez, honez gero afari on bat egiteko adina perretxiko badaukate.



Epelde

**Luis Mari Ibarro** eta **Itziar Mondragon** ekainaren 1ean ezkondu ziren. Ezkon-bidaian Kanaria Irlotara joan ziren. Zorionak!

## SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka  
Legutianoko atea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

## Plus Ultra taberna


Maalako errabala, 17  
ARRASATE Tfnoa: 79 20 57

## beatriz

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33 ARRASATE





# Nork ez du nahi baloia?

Ostiralean, lehen atzeratutako partiduak jokatuko dira

# HIRREI

**SUKALDE OSOTUAK**

Zarugalde, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 02 82 Faxa: 77 09 07



## A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Fosforos	4	4	0	0	19	7	8
G. P. Noski	4	3	1	0	19	6	7
Los Heredia	4	3	0	1	27	11	6
Kriskibalda	4	3	0	1	20	11	6
Zulu's	4	3	0	1	21	13	6
A. Kristaldegia	4	3	0	1	14	6	6
Adobe	4	3	0	1	19	17	6
Akeitegi Express	4	2	1	1	29	13	5
Jubilatus	4	2	1	1	22	24	5
Los Manchas	4	2	0	2	21	19	4
Tronkoteak	4	2	0	2	18	19	4
Uglys	4	2	0	2	11	12	4
S. Ind. Ugarte	4	0	1	3	8	18	1
Koxkas	4	0	1	3	14	22	1
Expert	4	0	1	3	9	33	1
T. San Josepe	3	0	0	3	8	18	0
Neanthertal's	3	0	0	3	3	13	0
B. D. L	4	0	0	4	2	32	0
<b>Total</b>	<b>70</b>	<b>32</b>	<b>6</b>	<b>32</b>	<b>294</b>	<b>294</b>	<b>70</b>

## B taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
La banda	4	3	1	0	18	5	7
Los Motz	3	3	0	0	25	3	6
Potroak Lorateg.	3	3	0	0	17	6	6
Navarros	4	3	0	1	16	7	6
Fasprint	3	2	1	0	15	8	5
Danok Lagun	3	2	0	1	15	8	4
Gau Azkenak	3	2	0	1	13	7	4
Jo ta akabau	3	2	0	1	15	11	4
Ganbelas	3	2	0	1	8	7	4
Sibiur Rover	3	1	1	1	6	9	3
Anbotoste K. T.	4	1	1	2	10	17	3
Bukanak	4	1	1	2	9	22	3
Totxus	3	1	0	2	8	7	2
Inter de Alima.	4	1	0	3	7	19	2
Maria del Monte	4	1	0	3	5	20	2
Txintxes Osorik	4	0	1	3	5	14	1
M. K. A.	3	0	0	3	4	12	0
Oleee!	4	0	0	4	5	19	0
<b>Total</b>	<b>62</b>	<b>28</b>	<b>4</b>	<b>28</b>	<b>201</b>	<b>201</b>	<b>62</b>

## C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Gnu. Seg. Bilbao	4	3	1	0	13	2	7
New Laso Arregi	4	3	1	0	14	6	7
Adelaida	4	3	0	1	25	7	6
Diego Antonio	4	2	2	0	16	13	6
Taber. Monterrey	4	1	3	0	14	12	5
Bar Kajoi	3	2	0	1	18	8	4
Argi Ibili Mapfre	4	2	0	2	13	11	4
ATB	3	1	2	0	11	9	4
Txokeros	4	2	0	2	12	11	4
Aizpun Bila	4	2	0	2	18	19	4
Alaves	4	2	0	2	11	17	4
Arrasate Press	4	1	1	2	8	9	3
AEK	3	1	1	1	7	9	3
Shaktale	4	1	1	2	11	18	3
Aurrera bolie!	3	1	0	2	5	8	2
Sokoakoak	4	0	1	3	12	18	1
Bayer de Lenitz	4	0	1	3	6	26	1
Whiskeria Linde	4	0	0	4	10	21	0
<b>Total</b>	<b>68</b>	<b>27</b>	<b>14</b>	<b>27</b>	<b>224</b>	<b>224</b>	<b>68</b>

## D taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Notxingan Flo.	4	3	1	0	17	7	7
V. C. Daglas	4	3	0	1	31	3	6
Artzankos	3	3	0	0	16	5	6
Bizkorak	3	3	0	0	14	3	6
Arrasate Kirol.	3	3	0	0	15	5	6
Pepelus	4	3	0	1	16	8	6
Bar Artano	4	3	0	1	16	9	6
Camerun's Trikiti	3	1	2	0	9	7	4
Hirei	4	2	0	2	9	12	4
Arrasate Comer.	4	1	1	2	6	10	3
Ghana	4	1	0	3	10	10	2
Resakas	4	1	0	3	10	17	2
Ezkinako honiza	4	1	0	3	8	20	2
Balaie	3	1	0	2	3	18	2
Sukumurus Anb.	3	0	1	2	2	10	1
Nagixak	4	0	1	3	3	15	1
Kakajauri	3	0	0	3	2	7	0
Atxanta ke te...	3	0	0	3	6	27	0
<b>Total</b>	<b>64</b>	<b>29</b>	<b>6</b>	<b>29</b>	<b>193</b>	<b>193</b>	<b>64</b>

# JMA



Zertan ote dabilta argazkiko bi horiek? Futbitoan? Baloia goitik dabilela eta beraiek alborra begira futbitoan? Futbolariena baino balet-eko dantzarien itxura handiagoa dute.

# Eskiña taberna

Olarre, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 02 20

## EMAITZAK

### A taldea

Tronkoteak 2	.....G.P. Noski 5
Los Heredia 7	.....Adobe F. K. 1
Koskas 3	.....Kridkibalda 5
Jubilatus 8	.....Los Manchas 4
Uglys 1	.....Arrasate Kristaldegia 3
Akeltegi Express13	.....B. D. L. 0
Expert 3	.....Sum. Ind. Ugate 3
Neanderthal's 1	.....Fosforos 3
Tall. San Josepe 1	.....Zutu's 4

### C taldea

Diego Antonio 3	.....Monterrey taberna 3
Aizpuz Billa 4	.....Txokeros 3
Sokoakoak 4	.....ATB 4
New Laso Arregi 4	.....Adelaida 1
Shaktale 2	.....Aaves 5
Gnu. Seguros Bilbao 4	.....Argi Ibilii Mapfre 0
Whiskeria Linde 1	.....Bar Kajo 7
Arrasate Press 2	.....AÉK 5
Aurrera Bolle 4	.....Bayer de Lenitz 1

### B taldea

Los Motz 6	.....Danok Lagun 1
Potroak Lorategi 5	.....M. K. A 1
Bukanak 2	.....Tobus 1
Anbotoste K. T. 4	.....Oleel 1
Gau Azkenak 2	.....Ganbelas 3
Maria del Monte 1	.....Jo ta akabaul 6
Txintxes Osorik 1	.....Sibilus Rover 1
La Banda 4	.....Fasprint 4
Inter de Alimarias 2	.....Navarros 3

### D taldea

Nagixak 0	.....Arrasate Kirolak 5
Pepelus 5	.....Bar Artano 2
Sukururus Anboto 0	.....Video Club Daglas. 5
Artzankos Udalaiz 7	.....Resakas 1
Bizkorrak 8	.....Ezkinako hontzak 1
Ghana 5	.....Hirei 0
Arrasate C omercial 3	.....Camerun's Trikii 3
Balalke 2	.....Kakajauri 1
Abxanta ke te mereces 3	.....Notxingan Florest 7



José Luis Albuin

**Kiromasajea**

**Akupuntura**

**Kontsulta  
naturista**

San Josepe, 10 etxabea.  
ARRASATE Tfnoa: 77 01 33

# KAJOI TABERNA

ERDIKO KALE, 22  
ARRASATE  
TFNOA 79 32 27

*Erikite* S.L.

- Soinua
- Bideoa
- TB
- Komunikazioa

Otalora, 25 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 77 13 20



## Zaldibarko Futbito-txapelketa

# Txutak

### Partidu zozoak

Partidu interesgarriak iragarri genituen joan den asteburuko ihardunaldirako eta ez genuen hutsik egin, gauza asko argitu dituzte eta. A multzoan, joan den astera arte lider zen *Adobe* taldea, ez zen uste bezain lider sendoa eta *Los Heredia* taldekoek argi utzi zuten hori, 7 eta 1-eko emaitzaz nagusitu bait zitzairen *Adobetarrei*. Gauza bera gertatu zen B multzoan, *Los Motzek* 6 eta 1 irabazi bait zion *Danok Laguni*. Bigarren multzo honetan *La Banda* doa aurreneko postuan eta lider sendoa ditudi, joan den astean berdindu egin bazuen ere. C multzoan gauzak ez daude batere argi: *Adelaida* taldeak, iazko txapeldunak, galdu egin zuen, baina

ondo sailkatuta dago; *Argi Ibili*, faboritoetariko bat, ez dabil aurrez pentsa zitekeen bezain ongi eta bere bigarren partidua galdu zuen. Ondo baino hobeto, *Gnu Seguros Bilbao* eta *New Laso Arregi*. Azkenik, D multzoan *Pepelusek* erraz irabazi zion ordura arteko liderrari, *Bar Artanori* hain zuzen, 5 eta 2.

Datorren ihardunaldian, larunbat eta igandeko partiduez gain, ostiralean atzeratu zirenak jokatu dira.

Ondorengo hauek:

- Neanthertal's - T. San Josepe
- Los Motz - Potroak Lorategi
- Danok Lagun - Gau Azkenak
- MKA - Totxus
- Ganbelas - Jo ta akabau
- Sibilius Rover - Fasprint
- Bar Kajoi - AEK
- Sukum. Anboto - Artzankos Udal.
- Arrasate Kirolak - Bizkorra
- Balaike - Atxanta ke te...
- Camerun's Trikiti - Kakajauri
- Aurrera Bolie - ATB

BEÑARDO KORTABARRIA

### DATORREN ASTEBURUAN

#### A taldea

Tronkoteak .....	Ugys
Los Heredia .....	Fosforos
Koskas .....	Sum. Ind. Ugarte
Jubilatus .....	Krisibaldia
Akeltagi Express .....	Zulu's
Expert .....	Los Manchas
Neanderthals .....	B. D. L.
Adobe F. C. ....	G. P. Noski
Tall. San Josepe .....	Arrasate Kristaldegia

#### B taldea

Los Motz .....	Gau Azkenak
Potroak Lorategi .....	Txintxes Osorik
Bukanak .....	Sibilius Rover
Anboto K. T. ....	Tobus
Maria del Monte .....	Navarros
Txintxes Osorik .....	Oleeeee!
La Banda .....	Jo ta akabau!
M. K. A. ....	Danok Lagun
Inter de Alimarias .....	Ganbelas

#### C taldea


Diego Antonio .....	Shaktale
Aizpun Bila .....	AEK
Sokoakoak .....	Bar Kajoi
New Laso Arregi .....	ATB
Gnu. Seg. Bilbao .....	Bayer de Lenitz
Whiskeria Linde .....	Adelaida
Arrasate Press .....	Argi Ibili Mapfre
Txokeros .....	Monterrey taberna
Aurrera Bolie! .....	Alaves

#### D taldea

Nagixak .....	Bizkorra
Pepelus .....	Kakajauri
Sukumurus Anboto .....	Camerun's
Artzankos Udalaiz .....	Video Club Daglas
Chana .....	Notxingan Florest
Arrasate Ciomerda .....	Resakas
Balaike .....	Hirei
Bar Artano .....	Arrasate Kirolak
Atxanta ke te mereces .....	Ezkinako Hontzak

• **Arimazuri** •  
dastapenak  
**ZABALIK GOIZEKO**  
**SETATIK**

Arimazuri plaza / Loramendi, 6  
ARRASATE Tfnoa: 79 80 44



## EGIDO

Automobilarentzako  
ordezko piezak

Lagaria Pabiliza. ARRASATE Tfnoa: 79 82 11

# STIHL

## Leniz

## Motor

- Nekazal makinaria
- Basogintzarako tresnak
- Lorazaintza
- Motozikleten salmenta eta konponketa

Gipuzkoa Etorb., 9 ARRASATE Tfnoa: 79 11 78



## La Estrella

A s e g u r u a k


Artekaria:

**M<sup>a</sup> Asunción de**  
**la Fuente**

Zarugalde, 52 etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 12 72

Ignasi Vila

## Hizkuntzalari donostiarra Katalunian



— Garbi dago hizkuntza bat erabiliz ikasten dela. Zenbat eta kontaktu gehiago eduki hizkuntza horrekin hobeto menperatuko da. B ereduan bigarren hizkuntzan %50a ematen da; ondorioz, bigarren hizkuntza ikasteko aukerak murriztagoak dira %100 bigarren hizkuntzan ematen bada baino.

— Zein ondorio aterako zenuke Kataluniako esperientzia ikusi eta gero?

— Uste dut oso positiboa izan dela Estatuan zegoen ideia bat apurtu duelako.

Denek uste zuten umeari ama-hizkuntzan erakutsi behar zaiola eta honetan dago oinarrituta B eredu, hain zuzen ere. Inmersiozko ereduaren hezitako ume batek ez dauka inongo arazo psikologiko, pedagogiko, akademiko edo pertsonalik. Ikasteko orduan ez zaio gehiago kostatzen, gai ezberdinetako edukiak berdin-berdin menperatzen ditu eta ama-hizkuntzan hezitako umeen emaitzekin konparatuz gero, ez da diferentzia handiegirik ikusten. Berriz, elebidun eredu batean

— **“Garbi dago hizkuntza bat erabiliz ikasten dela”**

Ignasi Vila, jaiotzez donostiarra, Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea, urte batzuetan Bartzelonako Hezkuntza Zientzien Institutuko zuzendaria izan da. Ume elebidunek ama-hizkuntza ez duten beste hizkuntza bat ikasteko prozesuari buruz egin dituzten ikerketak. Eskoriatzako Magisteritzako Eskolako antolatu duen birziklapeneko ikastaroan parte hartzen ari da.

— Umeak, ama-hizkuntza ez duen beste bat ikasteko prozesua, nola eramaten duzue aurrera?

— Prozesu hori inmersio programen bidez egiten dugu. Inmersioa, etxetik eskolara hizkuntz aldaketa suposatzen duen hezkuntz programa da. Inguru batean gaztelania nagusi denean, hor bizi den pertsona batek beste hizkuntza ofizial bat ikasteko duen aukera bakarria eskola da eta inmersio programaren bidez. Inmersio programen helburua bikoitza da: alde batetik berea ez den hizkuntza ikastea, eskolako lanak egiteko inongo arazorik izan ez dezan; bestetik, gizarte-bizitza hizkuntza berriari bizi ahal izateko aukera emango dio.

— Baina horrek hizkuntza hori eskolako gauzetan bakarrik erabiltzeko arriskua dauka, ez?

— Bai, hori egia da, baina ez da eskolaren arazoa. Eskolak hizkuntza erakustez arduratu behar du bakarrik, gero hizkuntza hori erabiltzen den edo ez, ez da eskolaren arazoa, inguruarena baizik.

— Inmersiozko eredu honek, zein abantaila eskaintzen ditu beste eredu elebidunen ondoan?

ikasketak egin dituztenekin igertzen da, zeren lehenengoek askoz hobeto dakite bigarren hizkuntza elebidun ereduok baino.

— Populazio guztiari zabaldu dakiokkeen eredu da?

— Programa honetan ume erdaldunak sar daitezke. Ume euskaldunak ezin dira sartu horrelako programa batean, zuzenean bere hizkuntza den programan sartuko dira, ez badira sartzen behintzat, gaztelaniazko inmersio programa batetan; hau izango litzateke orain arte egin dena ume euskaldun, katalan eta beste askorekin. Orduan, bakarrik erdalduna den populazioaren arlora zabal daiteke.

— Zenbat ume daude katalanez eskolatuak eta zenbat erdaraz?

— Momentu honetan dauden datuen arabera, %56ak katalanez ikasi du. Kontuan hartu behar da familia katalanak %40a direla, beraz %16aren tarte hori esanguratsua dela uste dut. Datu berri-berriak dira.

— Inmersio-programek, OHOtik aurrera badute egiazko aplikaziorik? Hau da, badago institutu eta unibertsitateetan katalanez ikasteko aukerarik?

— Unibertsitatean katalanez ikasteko aukera zabal samarra da, maila ertainetan ordea ez da horrelakorik gertatzen. Behar bada hutsunerik handiena hortxe dago. Unibertsitatean matematika, kimika, fisika eta antzerako ikasketak %100 katalanez egin daitezke; psikologia, zuzenbidea, ekonomiak, etab. %60a, ikas daiteke; pedagogian eta filosofian %50a. Odontologian ordea, %100a erdaraz. Hizkuntza-aren erabilerari dagokionez, zientzietako fakultateak beti izan dira aurrerakoiagoak.

# Hilerria: benetan beste herri bat

**Udal-Artxiboko informazioaren arabera, Aldaiko hilerriaren lehen handitzea 1908 urtean Eusebio de Madariaga antzuolarrak egin zuen, 1.745 PTAtan. Urte batzuk beranduago, 1917an, handipen berria egin zitzaion, kristau katolikoaren eta ez zirenen eremuak bereizteko. Gerra-denboran, 1937, berriro handitu zen, 23.000 PTako kostuz Arin anaiek egin zutelarik. Orain Udalak Aldaiko hilerria itxi egingo du eta San Kristobalen berria eraiki.**

**J**on Etxanizek bederatzirente urte daramatza Aldaiko hilerrian, lurperatzaile lanetan noski. Denbora horretan, hilerriko bazter guztiak ezagutzeaz gain, egunero txoko lasai hartara joaten diren ohituz jabetzeko aukera irabian du. "Era guztietako jendea etortzen da; batzuek loreak ekarri, otoitz egin eta berehala alde egiten dute. Egunerokoak, bizpahiru orduz hemen egoten dira, arratsalde-pasa. Gehienbat erdaldunak etortzen dira, euskaldunak ez dute horrelako ohiturarik. Jende askok hilerria pasabidetzat hartu du, Musakola eta erdigunearen arteko distantzia murrizten duelako. Institutuko ikasleak, esaterako, egunero pasatzen dira hemendik".

## Berriaren beharra

**L**urperatzaileak, otoitz egitera joaten direnak

bezain ondo ezagutzen dituzte lurpean daudenak, plakengatik besterik ez bada ere. Aldaiko hilerrian 2.200 nitxo daude eta 208 panteoi, azken hauen %60a beteta. Jon Etxanizek zioenez, urtero

100-125 nitxo libratzen dituzte eta 140-150 gorpu sartzten. Inoiz hilobiren bat libratzerakoan sorpresarik eraman ote du? "Momifikatuta urtero hamabosten bat gorpu agertzen dira. Eguz-

kiaren eraginez izaten da hori; indarrez jotzen duenean batzuetan gorpuak usteldu beharrean lehortu egiten dira. Ez da denbora asko parrukoarekin eztabaidatzen egon nintzela, berak moja baten gorpu momifikatuaz hitz egiten zuelako zerbait berezi balitz bezala. Hemen hori gauza arrunta da".

Aurrez aipatutako datuen arabera, ez dago gehiegi pentsatu beharrik hemendik urte batzuetara hilerrian tokirik ez dela izango ikusteko. Hortaz, Arrasateko lurperatzailea San Kristobalگو hilerria lehenbailehen egitearen aldekoa da. "San Kristobalگو proiektua berez ondo dago, baina ez dut uste ondo egiten ari direnik. Udal-proiektuak lana hiru fasetan aurrikusten du: panteoiak saltzen diren bitartean bulego, aparkaleku, eta tresneriaren tokia egiten hasi. Panteoi-salmentekin lortzen den diruarekin bigarren faseari ekin, panteoiak eta hezurtegiak eginez. Azkenik, kapila eta erraustegia egin-go lituzkete. Jende askok orain panteoia dauka eta ez



Jende askok arratsalde osoa pasatzen du hilerrian

du beste bat erosiko eginda ikusi arte; bitartean norbait hiltzen bazaio, zer? Non lurperatuko du?"

#### Bi hilerri batean

**S**an Kristobalگو hilerria egin arte, Jon Etxaniz eta bere laguntzaileak ohizko lana egiten jarraitu beharko dute Aldain. Urtaroen arabera lan desberdinak izaten dituzte. "Udaberrian, jardinak apaindu, gorpuk atera, lurperatu eta ohizko bulego-lanak izaten ditugu. Udan, berriz, garbiketa-lanak eta lurra zaintzea izaten da gehiena. Udazkenean lan handiena panteoiak garbitzea izaten da, orri asko erortzen delako. Neguan, berriz, eguraldi txarrarekin ezin da gehiegirik egin, etortzen direnei kasu egin eta lurperaketaren bat badago, ba, horixe". Aldain ezezik, auzoetako hilerrietan ere egiten dute lan Jon Etxaniz eta bere laguntzaileak. Sakabanaketa honekin bukatzea komenigarria iruditzen zaio Arrasateko lurperatzaileari, alde batetik bi lagun bakarrik izatean askotan ehorzketa bat baino gehiago batera izaten dituztelako; bestetik, auzoetako hilerrietan nitxorik ez dagoenez, zuloak egin beharra izaten delako.

Kexatzeko eskubide osoa dute Jon Etxaniz eta bere laguntzaileak, baina zer esango ote zuten lan hori duela 50 urte izan balute? Seguruenez gehiago kexatu, orduan Al-



Lore-sortak ohizko gauza dira hilibietan.

dain bertan, kristau ez zirenak, bere burua botatzen zutenak, ideia politiko desego-

kiak zituztenak, etab. lurperatzeko beste toki bat bait zegoen

## erreportai

### Lurperatzea nahiago erretzea baino

**L**urperatu ordez, norberak aurrez aukeratu badu behintzat, hil eta gero erretzeko aukera har dezake. Hori bai, Arrasaten ezin da horrelakorik egin, ez dago labe egokirik eta. "Hemen gehienek lurperatzea nahiago izaten dute -dio Jon Etxanizek-; iaz 4 edo 5 izan ziren Deriora eraman zituztenak erretzera. Gainontze-koak hemen daude".

San Kristobalگو hilerrian ere labea jartzeko asmoa dago, baina ez gorputzak erretzeko, lurpetik ateratzen dituzten hezurak erretzeko bakarrik. Hilerri zaharrera nahiz berrira, inork ezin izango diogu ihes egin lurpera daraman bidaiari.

## Lurpera daraman bidea

**H**il eta gero ere ezin utzi tramiteak alde batera. Gaur egun lurpera daraman bidea gehiengoak aseguroaren bitartez egiten badu ere, lehenik Udaltxean baimena atera behar izaten da. Gero, funerarian gauza bera.

Diru-kontutan sartuz gero, normala da inork hiltzeko gogorik ez izatea. Ikusi bestela: zerraldo normal batean sartu, funeralerako prestatu eta hilerria eramatea, batz bestea, 80.000 PTA kosta daiteke. Koroi bakoitzak, beti batz bestea, 15.000 PTA, eskelak jartzea 30.000 PTA, lore-sortak 6.000 PTA. Guzti hori hilerria sartu aurretik; hilerrian bertan, hamar urterako nitxoa 15.000 PTA kostatzen da. Prezioen gorabehera handiena hilarri edo lapidatan ematen da, merkeenak 60.000 PTA balio ditzake, garestienak berriz 400.000 PTA. Arrasaten gorpurik erretzen ez denez, ez da posible jakitea zenbat balio dezakeen, baina badirudi merkeagoa dela.

**AUTO  
ESKOLA**


**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89

## Rugby-zelaia konpontzeko akordioa

Asko kostatuta izan bada ere, azkenik Udal-agintariek Garagartzako rugby-zelaiaren egoera penagarriari irtenbidea ematea erabaki dute. Horrela, joan den asteko Gobernu-Batzordean txukuntze lanetarako aurrekontua onartu zen. Aurrekontua, guztira 410.000 PTAkoa da, hiru motako lanetan gastatuko delarik: belar eta sastrakén garbiketa, Abadiñoiko "Parques y Jardines" enpresaren kontura, 140.000 PTAtan; zoruaren berdinke-



ta, "Compañía de pavimentos alaveses" enpresaren kontura, 150.000 PTAtan; azkenik, saneamenduari da-

gozkion lanak "Construcciones Hirurok" enpresak egingo ditu, 120.000 PTAtik. Azkar egingo ahal dute!



## Neskak gero eta hobeto

Martxa izugarria daramate Mondra taldeko neskek, orain arte jokatu dituzten partidua irabazi egin dituzte eta. Egia esan, oraindik ez dute oso talde indartsurik izan aurrean, baina hala ere forma onean dabiltzala ari dira erakusten. Joan den astean, Zumaia taldeari zortzi gol sartu zizkioten, bakar bat ere jaso barik. Hutsik handiena ikusleek egiten dute, joan den astean bertan Atxabalpen arrasatearrak baino gehiago zumaiairrak zirelako.

## Hurrengo partidua

Ondo jokatzen hasi bazen ere, Mondra esku hutsik etorri zen Zallatik. Arrasatearrek aurrea hartu zuten markagailuan, baina bizkaitarrek buelta eman zioten partiduari eta garaipena eskuratu. Mondrakoek ez zuten suertetik izan: partidua hasi eta gola lortu bezain laster Ruizek zangoko muskulu bikien etendura izan bait zuen. Aldaketa egin eta gero taldeak zeharo galdu zuen partidua. Bigarren denborari berdinketarekin eman zitzaion hasiera eta berriro zorte txarra izan zuten arrasatearrek, jokatzen hasi eta segituan Ibanek eskumuturra hautsi zuelako. Ordurako bi aldaketak egin da zeuden, beraz Mondrak bigarren zatia hamar gizonekin jokatu zuen.

Igandeko partidua ere, ez da erraza izango Mondrarentzat. Inaxio, Urretxu, La Fuente, Iban eta Gerardok ezin izango dute jokatu. Txosarena zalantzan dago.

Igandean, arratsaldeko 4etatik aurrera, Azpeitiako Lagun Onak taldearen aurka jokatuko du Mondrak. Normalean Mondrak irabazi beharko luke, baina taldea nola dagoen ikusita, edozer gerta daiteke. Izagirrek berak ere ez zuten konfidantza handirik azaltzen.



**FANCY**

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**"PAL"**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria


Uribarri etorbidea, 3  
Tfnoa: 79 31 99



## J. M. LARRAÑAGA

### 19 maratoni bukatuta

# PODIUMA



**J**ose Mari Larrañagak berrogeitamar urte dauzka eta maratoni-gizona dela esan daiteke. Izugarriko markarik ez badu ere, Jose Marik dagoeneko hemeretzi maratoni bukatu ditu eta beste bitan hogeitamabostgarren kilometroan erretiratu zen. Ez nekeagatik, oinetakoak egiten zioten minagatik baizik. *"Hori da oinetako onak eramaten txarrak erabiltzera dagoen diferentzia. Oinetako on batzuekin ia ez naiz oharitzen eramaten ditudala ere; txarrekin, ordea, denbora guztian oinetan pentsaten joaten naiz eta ez eritmo egokia hartzen"*.

Donostian burutzen den maratonioko edizio guztietan, Behobia-San Sebastian proba famatuan, Arrasate-Oñati lasterketan eta beste hainbatetan hartu du parte Jose Mari Larrañagak. Beraz, argi dago entrenamendu edota han-hemengo lasterketan ikus daitekeen beteranoetarikoa dela. *"Lehen mendian ibiltzen nintzen asko, lagunak baino errazago gainera. Gero, biriketaren ebakuntza egin zidaten eta ondorioz, sendagileak kirola egitea gomendatu zidan. Halaxe hasi nintzen maratoniari. Kirola beti gustatu izan zait, baina ez lehia bezala, denbora pasatzat. Ondo*

*bizitzeko, izpiritua, burua eta gorputza forma onean izan behar dira"*. Behar bada bizi-filosofia horregatik, Jose Mari Larrañaga ez da inoiz marka on baten atzetik ibili. *"Irteteko orduan, bukatzean besterik ez dut pentsatzen, hori izaten baita nire helburua. Orain hiru ordu ere inguru behar izaten ditut maratoni bukatzeko, lehen azkarrago egiten nuen. Entrenamenduei ere ez diet denbora gehiegi eskaintzen, behintzat lan-denboraldian. Oporretan beste gauza bat da, orduan egunero egiten ditut kilometro batzuk"*. Jose Mari beteranoa denez, maratoni eta maratoniari eboluzioa ondo ikusi du. *"Orain lehen baino jende guxiago ibiltzen gara, baina hobeto prestatuakoa. Giroa da aldatu ez dena, batez ere ikusleen aldetik, hauek, bai lehenengo doanari baita azken postuan doanari ere, txalo izugarriak eskaintzen dizkiete eta"*.

#### ◆ Centraljeten lehen porrota

Noizbait izan behar zen eta pasa den larunbatean iritsi zitzaion Centraljet Euskal Air saskibaloi taldeari aurtengo denboraldiko lehen porrota. Musakolako kiroldegian jokatuako partidua emaitza, 88 eta 71koa izan zen SDI Loyola taldearen alde. Ohi den bezala, jende ugari izan zen Musakolan herrikoen garaipena ikusi asmoz. Garaipenik ez zen iritsi, arrasatearrak jaurtiketetan oso gaizki ibiltzeaz gain, pase txar ugari egin zituztelako. Epaileen lana ere ez zen oso ona izan. Datorren astean, arrasatearrek Juven-en kantxa bisitatuko dute, partidu zaila hau ere.

#### ◆ Nesken derbia arrasatearrentzat

Centraljet taldeko mutilek galdu zegin bazuten, neskak irabazle atera ziren Bergarako taldearen aurkako partidutik. Partidua oso borrokatu izan zen, talde bien artean lehiakortasun handia dago eta. Azkenik, arrasatearrak, puntu bakan batengatik izan bazen ere, garaile: 54-53. Garaipen honi esker, Centraljeteko neskak sailkapeneko laugarren postuan daude. Datorren asteburuan bigarren sailkatuaren aurka jokatu dute, Musakolan seguruz.

#### ◆ Eskubaloian berriz galdu

24-19 galdu zuten Arrasate Kirolakeko mutilek Oarso taldearen aurkako partidua. Printzipioz, aurrean zein talde zegoen ikusita, partidutik zerbait positiboa espero zitekeen baina asmoak ustel suertatu zitzaizkien Ruiz de Cenzanoren mutilei. Joan den astekoaren ondoren, arrasatearrak sailkapeneko zazpigarren postuan daude, bi partidu irabazita eta beste bi galduta. Datorren astean etxean jokatu du Arrasate Kirolakek eta normala irabaztea litzateke, oraindik garaipenik ezagutzen ez duen Jauja taldea etorriko baita Arrasatera.



## LARRAÑAGA KIROLAK

Maiatzaren 1a plaza. ARRASATE  
Tfnoa: 79 97 24

**Gu prest gaude negurako,  
eta zu?  
Ez bazaude gertu,  
pasa hemendik!**

# Arrasaten rock-a euskaraz?

**E**gunkaria" k Arrasateri berriki eskaini dion gehigarrian irakurria dut, alegia, herriko rock-taldeen artean bakar batek egiten duela erabat euskaraz. "Musikantoi" saiorako egin genituen erreportaiez geroztik banekien errealitate horren berri eta ez nau oraingo dauak harritu.

Ruper Ordorikari entzun nion behin berak kantatzeko erabakia hartu zuen garaian euskarak bazuela transgresio-zentzurik, orduan zerbaiti kontra egiteko tresna zela euskara eta horregatik hasi zela bera euskaraz kantatzen. Fermin Muguruzari irakurri



berri diot kontzientzia izan zela gaztelaniaz kantatzeari utzi eta euskaraz kantatzera eramane zuena Kortatu taldea, militantzia ideologikoaren eragina.

Gaur egun, euskarak ez dauka inongo transgresio-zentzurik gazteentzat. Euskara eskolako hizkuntza da askorentzat, zaharrek egiten

duen hizkuntza eta instituzioek publizitate bidez bultzatu nahi dutena. Errebelde izan nahi duenak arrazoi subjektibo gehiago aurkituko ditu euskararen kontra alde baino. Bestalde, kontsigna militante bati erantzunez euskarara joko dutenen kopurua ez dut uste ikaragarri handituko denik.

Rock-taldeetara itzuliz, musikaren munduan euskaraz egiteak ezartzen dituen mugak beste oztopo bat baino ez dira, Kortatu, Hertzainak, Ruper eta beste zenbait lekuko. Arrasateko erreferentzia historikoak —RIP bereziki— erdaldunak izan dira.

Guzti hori hor dago eta ez da ahaztu behar. Horrek ematen du gaurko talde euskaldun/erdaldunen proportzioa. Eta proportzio hori aldatuko da euskararen presentzia Arrasaten normalduz doan heinean. Rock-taldea ez da termometro bat besterik.

MIKEL IRIZAR

## BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

### Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora Joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko galtz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GÓMEZ, MURGIÓNDO, OTALORA, RUIZ.


Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

# Batuta

## Xabier Olabarria

**39** ko Bergarar honek zortzi urterekin hasi zituen solfeoko ikasketak, baina kurtsoa konbalidatzeke daukanez, orain berriro ari da lehenengo kurtsoa egiten *Arrasate Musikalen*. Hala eta guztiz ere, kantatzea asko gustatzen zaio eta bere bizitzan zehar Bergarako orfeoian, Aritzeta koralean, Goikobalu koralean eta Bergarako Alai zortzikotean abestu du, azken bi hauetan jarraitzen duelarik gaur egun.

Goikobalu moduko talde batean abesteko ordu asko sartu behar dira entseiatzen, baina ez zaio axola. *"Goikobalun fijoak astean lau ordu ematen ditugu entseiatzen, hilean behin asteburuan teknika bokala lantzeko laupabost orduko entsaioa eta urtean bi edo hiru aldiz asteburu osoko kontzentrazioa"*. Beste familia askotan bezalaxe, Xabierren familian musikarako zaletasun handia egon da, aita organista, soinujolea eta abeslaria zelako. *"Aitak bost urte genuenetik hiru ahotsetara abesten erakutsi zigun eta gabonetan sei anai-arreba jaiotzarekin irteten ginen abesten"*.



Musika gehienak gustatzen zaizkion arren, musika gogorra ez da hain atsegina berarentzat; dena den, *"adinaren arabera dagoela uste dut; seguru nago gazteagoa banintz musika-mota hori gustatuko litzaidakeela, gazteagoa nintzenean musika askoz bortitzagoa entzuten nuelako"*.

Begarakoa izanda eta Arrasaten hainbat urte daramanez bizitzen, musika aldetik herri bietako egoera ezagutzen du. *"Nik esango nuke herri biek egoera berdin samarra dutela: bietan musika-eskola dago; Bergaran Aritzeta eta orfeoia daude, baina nire ustez Goikobaluk badauka hauek biek beste indar. Bergaran musika-banda eta banda sinfonikoa daude; Arrasaten, berriz, orain dela urte batzuk desegin zen banda; horregatik, nahiz eta Arrasaten jendea prestatuta egon, gero ez dauka non jo; Bergaran, berriz, aukera hori badute"*.

**"Gabonetan sei anai-arreba jaiotzarekin irteten ginen abesten"**

## Txio-txioak

### Aramaioar bat Gasteizko Musika Kontserbategiko zuzendari berria

Urte askotan Gasteizeko Jesus Guridi Musika-Kontserbategiko ikasketaburu izan ondoren, Sabin Salaberri aramaioarra toki bereko zuzendari izendatu berri dute, Carmelo Bernaolak, kargua utzi ondoren.

Sabin Salaberri duela 57 urte jaio zen Aramaion, abuztuaren 20an, hain zuzen. Txikitatik musikarako zaletasun handia zuela eta piano-karrera osoa egin zuen, baita armoniakoa ere. Ondoren, Araba Abesbatzan kantuan egiteari ekin zion. Abesbatza horretan hogeitalau urte pasatu ditu, horietatik hamabost zuzendari izan delarik. Era berean, Gasteizko kontserbategian klaseak ematen hasi zen. Denbora gutxian, ikasketa buru egin zuten, orain zuzendari egin duten arte. Dirudienez, orain arte zuzendari izan den Carmelo Bernaolak konposizio-lanak egiteko denborarik ez zuela eta utzi zuen kargua.


Gasteizko Jesus Guridi Musika-Kontserbategian, gaur egun 2.500 pertsona ari dira musika ikasten. Orain arte, musika kontserbategi honetan oinarritzeko eta erdi-mailako ikasketak egin zitezkeen bakarrik, baina aurreko goi-mailako ikasketak ere sartu dituzte. Beraz, Sabin Salaberri aramaioarrak kontserbategiaren kategoria berria eta bere kargua estreinatzen ditu.

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin, 5 ARRASATE Tfnoa: 79 25 77

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

# Egunkariaren gehigarri berezia dela eta

**A**rrasaten urteotan garatzen ari garen dinamika «euskalduntze prozesuan eredu bilakatu» dela inguruan eta «omenaldi gisa», atera asmo dituzten gehigarrien lehen postua geuri ematea eskertzeko moduko detailetzat ikusiko dugu, seguruenik, gehigarria eskuetan izan eta irakurri dugun gehientzuenok. Eskerrik asko, beraz, nahiz eta ondo dakigun egiteko daukaguna egindakoa baino askoz ere gehiago dela: harrokerietarako baino -ez dezala inork tentaziorik izan- beste batzuk baino aurreraxeago gaudelako ezin dugula atzera egin

ikustarazten lagun diezagula *Egunkariako*en detaile honek.

Hamasei orritan zehar, bata bestearen atzetik, bada lekurik direnak eta ez direnak esateko.


Atentziona deitzeko moduko batzuk esaten jarrita, harrigarri xamarra iruditu zait Jabier Ozaetak euskaldun «on» eta txarraren arteko lehiaketa moduko horretan zer esaten duen eta zer uzten duen esateko; esateko modukoa, halaber, Jose Mari Mujikak botatakoa, gure ikastetxeetako euskararen erabilera efektiboa dela eta, «*Horrela ezin da jarraitu, ez dugu etorkizunik*»; pozzarria herriko talde politikoe

egiten duten balorazioa denon artean lortzen ari garenari buruz, pozzarria, baldin eta Mendiaratxek esandakoa ahazten bada, jakina (norberaren gaitza besteren baitan ikusi gura, berriro ere); eta harritura uzteko modukoa iruditu zait, euskalduntze-alfabetatzeari dagokionez Arrasateko AEKn gertatu zenaz esaten dena esaten den moduan esatea («*Arrasaten AEKk banaketa gogorra ezagutu*» zuen?, «*zaitketaren ondoren irakasle gehienek alde egin*» zutela zeinek esan die? Arrasateko AEKn ez zen banaketarik izan eta irakasle guztiek egin zuten alde -edo bota egin zituzten?- batera); eta beste hainbat eta hainbat

eztabaidagai aurrerantzean zehazten eta lantzen jarrai dezakegunak. Puntu batzuk jarrita daude, nork helduko dien ikusi behar.

Hiru mila izan dira atera dituzten aleak Arrasaten banatzeko. Eta dudatxo bat geratu zait: Mondragoen ala Arrasatek kanpora banatzeak izan beharko luke lehentasuna? Hurrengo etorriko diren gehigarriekin modu berean jokatu da? Badakigunaz hitzegiteko bakarrik balio behar du ala beste toki batzuetan egiten ari direnaren berri izan dezagun ere balio behar du?

Atalataikoan



# Patterncam

**EREDUAK,  
MAKETAK ETA  
KONTROL-TRESNERIA  
CAD-CAM  
BIDEZ**

Musakola auzoa, 26

Kataide Industrialdea. 15. pabilioia. Tfnoa: 77 08 30. Faxe: 77 06 06

ARRASATE

# Txirrindularitza 1990-91

**1** 991 urtea bukatzeaz daukagu eta ez nuen denboraldiaren laburpen txiki bat egin gabe geratu nahi. Aurtent, urtero legez, makina bat buruko min eman digute gure bizikletari profesionalak. Euskaldunok pozik egon gaitzke, aurtengoak eman digunak benetan poztu gaitu eta. Indurainek egindakoa historiarako geratu da eta orain errepikatzea espero dugu. Marinok egindakoa ere txalogarria izan da, askok eta askok ez badakite ere, gure Marinok denboraldi bikaina izan du eta. Horrez gain, bere nortasunaz beste urte bat gehiago gozatzeko aukera eskaini digu.

Denen artean, nik neuk, txirrindulari bat goraipatu gura nuke: Elorrioko semea berori, Alberto Leanizbarrutia. Mutil xehe honek iaz eta aurtent, bereziki, eskaini diguna txalogarria izan bait da. "Urrezko gregarioa" esango lukete askok: txirrindulari osoa da eta euskal zaletuen artean gero eta maiteago agertzen ari dena. Duela urte bat inor gutxik ezagutzen zuen eta orain denek estimatzen dute. Hor ibili zen unerik larrietan ere bere taldearen buru, etaparen bat irabazteko grina berezi horrekin.

Elorriotar mutil honek erakutsi duenak eman dio biderik kanpoan ere ezaguna izateko, eta tropel nagusiaren



barruan izena pultsoz irabazi duela erakutsi du.

Gainerakoei buruz, Gorospe anaiak, Iñaki Gaston, Pello, Jokin... eta ondo ezagutzen dituzuen beste hainbat, niretzat ezagunenak aipatu baditut ere (barka diezadatela), hortxe tropelean aritu dira, gauza berezirik egin gabe, askotan punta puntan borrokan eta fruiturik jaso gabe geratu dira.

Bestalde, "odol" berriak irakin nahian edo, gazteagoak datoz atzetik, tropel gazte berriari eta tropel profesionalari haize berriak eman asmoz. Oraindik izenak aipatu dira, besterik gabe; baina bada itxaropenik etorkizuneari baino gehiago izateko, eta ziklismoaren euskal zaletuek beren izen berrien apostua egingo dute.

Aurreko igandean bertan, Iñigo Igartua bergarar gazteak ziklokroseseko lehen proba irabazi zuen. Hasi gara dagoeneko ereindako haziak, emankor bihurtzen. Ziklismoa maite duen oro pozik egon daiteke, gure bihotzak eta pentsamenduak emozioz bete dira eta. Hala biz.

K. U.



*Salterain*

**Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...**

**Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58**



**KOMMERLING**

**P. C. V.zko LEIHOGINTZA**

**20.500 ARRASATE**

### ZORUAK

- Francisco Fernandez.  
☎ 77 94 07
- J. L. Ugarte / P. Garrido.  
☎ 77 07 93



### INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

- Elektroleniz.  
☎ 79 03 03

# TELE

**Informazioa  
oskatzeko  
dei egin  
79 08 15  
tfno.ra**

# TES

Profesional,  
merkatari,  
enpresari! Zure  
zerbitzuak  
arrasatear guztien  
etxeetara iristea  
nahi baduzu, ATBko  
TELETESTUA da  
behar duzun  
publizitate-bidea.

### AUDIO-BIDEO

- Trikiti.  
☎ 77 13 20

Pintore, iturgin,  
igeltsero eta beste  
edozein  
profesionalen  
zerbitzuak behar  
badituzu, jo ezazu  
ATBko TELETESTUra,  
behar duzuna  
hantxe aurkituko  
duzu eta. Egunero  
zure zerbitzura,  
goizeko 9etatik  
arratsaldeko Bak  
arte.

### TOLDOAK

- Toldos Lete.  
☎ 79 23 83

# TUA

### BIDEO-KLUBAK

- Daglas.  
☎ 79 78 19

### PVC ALUMINIOZKO ARozGINTZA

- Yosu Thermik.  
☎ 77 13 20

### PINTURAK

- Pinturas Leniz.  
☎ 79 79 03
- A. Mailla / S. Andres.  
☎ 79 36 13
- Fidel Martin. ☎ 79 05 06
- Benito. ☎ 77 09 80

## ETXEBIZITZAK

- **Bi ikasle pisu bila dabilta Donostian.** Dei egin 79 53 82 tfno.ra bazkalordu edo afalordu etan.
- **Erguinen etxebizitza salgai.** Amueblatua, gas naturala, 3 logela, egongela, sukalde, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua, bista ederrekoa. Garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- **Etxebizitza alokatuko nuke Aretxabaletan ala Eskoriatzan.** Tfnoa: 79 59 60. Josu.
- **Zarugaide 3an garaje-plaza alokatzen da.** Tfnoa: 79 12 35.
- **Bilbon ikasle-pisua osatu nahi nuke.** Tfnoa: 79 24 51. Nerea.
- **Hiru langile gara Arrasaten alokatzeko pisu baten bila.** Tfnoa: 79 51 49.
- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxebizitza baten bila gabiltza Arrasaten.** Dei egin lanordu etan 79 02 11 (Alberto) eta 79 36 11 (Izaskun) tfno. etara.
- **5.000 PTA irabazi nahi badituzu lan samur batean dei egin 79 03 88 tfno.ra.** Gaueko 9.30etatik 11etara arte. Joseba

## LANA

- **Emakumea edozein lan egiteko prest:** gaixoak zaindu, garbiketak, umeak zaindu, etxeko lanak egin... Tfnoa: 77 07 12.
- **Emakume euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 91 30.
- **Lanak ordenadoren inprimatuko nituzke.** Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnora.
- **Bestaldeko irakasle batek frantseseko klase partikularrak ematen ditu.** Dei egin bazkalordu etan 79 20 24 tfno.ra.
- **OHOKO klase partikularrak emateko prest.** Tfnoa: 79 19 19.

- **Klase partikularrak ematen dira (fisika, kimika eta matematikak).** Dei egin 77 13 95 tfno.ra.
- **Emakume euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Fisikako partikularrak behar dira BT12. kurtsoa.** Tfnoa: 79 37 60.
- **Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 39 49. Iratxe Gonzalez.
- **Injinerutzako ikasle batek klase partikularrak emango lituzke (BUP, COU).** Dei egin 88 28 63 Tfno.ra. Aitor.
- **Ingelesko klase partikularrak emateko irakaslea behar da.** Tfnoa. 77 12 41 Agurizane.
- **Etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko prest dagoen emakumea behar da.** Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera 79 71 86 tfno.ra. Marisol.
- **FP2 eginda eta montaje elektrikoan esperientzia duen mutil bat edozein instalazio egiteko prest: goiargituak, automatikak, automatismoak, etab. Prezio erdian.** Harremanetarako dei egin 77 10 91 tfno.ra.
- **Etxeko lanak egin edo umeak eta pertsona nagusiak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 54 03
- **Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 90 57. Aretxabaleta.
- **Eguerdiko 12.30etatik ordu batetara euskarazko mintzapraktika klaseak emateko Arrasateko pertsona bat behar da.** Dei egin 76 15 76 tfno.ra arratsaldeko 8.30etatik aurrera. Reyes.

## SALEROSKETAK

- **Ordenadore pertsonala salgai.** Eredua: Amstrad CPC 6128 diskete unitatekoa (Basic-endako berezia). Oparia: telebista bihurtzailearekin, jokuak eta bihurtzailerak elkartutako iratzargailua. Dei egi 79 13 77 tfnora.

- **Kanpineko hozkallu berria salgai.** Dei egin 9etatik aurrera 79 90 55 tfno.ra.
- **Itzul eta Sor salteko liburuak salgai.** Merke eta berriak. 9-13 urte bitarteko haurrentzat. Tfnoa: 79 80 91. Ander.
- **Cibro-Kamin berogailua egoera oso onean salgai.** Tfnoa: 79 56 46.
- **Charli Mousser hamabi puntatako granpoiak,** Serval lo-zakua eta espelaz (boj) egindako nafar dultzaina salgai. Tfnoa: 77 09 72
- **Oso egoera onean dagoen eta egurrez nahiz ikatzez dabilen berogailua salgai.** Tfnoa. 79 45 80
- **Olivetti Linea 98 idazmakina salgai.** Tfnoa. 79 11 49. 9etatik aurrera. Miren.
- **Argazki-makina eta akzesorioak salgai:** Konika autoreflex TC argazki-makina + 50 mm.ko Konika objektiboa + 80-200 mm.ko Hoya zooma + f: 28 mm.ko Hoya angular handia. Prezio oso interesgarria. Dei egin iluntzean 79 86 08 tfno.ra.

## DENETARIK

- **Egunero Bilbora (Leloara) joateko kotxea behar dut, gastuak erdibana.** Dei egin gaueko 11etatik aurrera 79 66 99 tfno.ra.
- **Abuztuaren 2an spaniel-breton arrazako txakurra desagertu zen.** Izena Mendi (txuria eta marroia da). Zerbait badakizu dei egin 79 24 66 tfno.ra.
- **Egunero eguerdiko 2etarako Eibarren egon behar dut.** Norbait eramateko prest badago dei egin dezala 79 22 63 tfno.ra (gaueko 9.30etatik aurrera).
- **Bilbora (Leloara) arratsaldez bazoaz, dei egin 79 22 63 tfno.ra gaueko 9.30etatik aurrera.**

## ARRASATEN HILDAKOAK

**Emerita Arana Garaialde,**  
urriaren 22an. 82 urte.

**Maxima Agirre Arana,**  
urriaren 24an. 86 urte.

**M<sup>a</sup> Aranzazu Erguin Zeziaga,**  
urriaren 25ean. 80 urte.

**Juana Etxebarria Maidagan,**  
urriaren 25ean. 90 urte.

**Ageda Goitia Bengoa,**  
urriaren 26an. 78 urte.

**Constancia Hernandez Abad,**  
urriaren 27an. 94 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

# Zer nahiago?

## Isaias Moreno

### Meka gasolindegikoa

- **Superra ala normala?** Superra sofistikatuagoa da.
- **Bezeroak, emakumezkoak ala gizonezkoak?** Emakumezkoak beti ekartzen dute gasolina pixkat eta bizkorrago bukatzen duzu.
- **Gizonezkoa, belarritakoarekin ala belarritako gabe?** Belarritako gabe normalagoak iruditzen zaizkit.
- **Lanerako, beroa ala hotza?** Beroa askoz hobeto aguantatzen da hotza baino.
- **Bizarra mozteko makina ala aitzurra?** Normalean makinaz, bizkorragoa da.
- **Erreleboa ala ordutegi normala?** Erreleboan askoz gehiago aprobetxatzen duzu eguna.
- **Uniformea ala kaleko arropak?** Kaleko arropak lanerako ere.
- **Erreala ala Atletika?** Erreala.
- **Gasolina ala gasoila?** Gasolina, potentzia gehiago dauka.
- **Dutxa ala bainua?** Dutxa, bizkorragoa da.
- **Neskak ilehoriak ala beltzaranak?** Berdin zait.
- **Txuleta ala perretxiko-tortila?** Txuleta.
- **Juxtu ordaintzen dutenak ala bilete handiz?** Juxtu ordaintzen dutenak, berehala bukatzen duzu eta.
- **Txikiteoa ala mendia?** Biak egiten ditut.
- **Kamioia ala kotxea?** Kotxea ez da hain handia eta errazagoa da erabiltzeko.
- **Erretzaileak ala erretzen ez dutenak?** Ni erretzailea naiz, baina nahiago ditut erretzen ez dutenak.
- **Euskaraz ala erdaraz?** Euskaraz gauza gutxi dakit.
- **Zinea ala telebista?** Zinea nahiago dut, baina telebista gehiago ikusten dut zinea baino.
- **Makina automatikoak ala dirua eskura?** Makina automatikoak.



# Bertsotan

## Soldaduzkarako zozketa

1  
Soldaduen zozketa ari da hurbiltzen eta hamaika mutil pixkat urduritzen beraien buruari diote galdetzen zertarako ikasi pertsona bat hiltzen?

2  
Nahiz ta intsumisoek hartu duten zona baten bat egongo da joatear dagona mutil horiei opa diet zorte ona eta azkar etorri ditezela hona.

SAIOA ARANDO



## ITURRIOTZ taberna

GIRORIK  
JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



## J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate





Santa Barbara, 1968.

**1** 968-69 ikasturtea zen. Ikastola hasi berria zen eta argazkikoak bigarren promozioakoak ziren. Hau da, ordura arte ikastolan 3 urtera arteko taldea, 4 eta 5 urteko umeen taldea eta 5 urtetik gorakoen taldea zeuden. Ikastolak Musakola eta San Andresen zeuden, Musakolako bertako eta erdiguneko hainbat umez

osatuta eta San Andresekoa sistema berarekin. Argazkikoak San Andres ikastolakoak dira. Ez zaigu posible izan jakiterik zeintzuk diren guztiak, baina tira! ezagututakoak ezagututa, hor doa zerrenda: Ezkerretik eskumara, makurtuta: **Patxi Velez de Mendizabal, ezezaguna, ezezaguna, Guillermo Mujika, Josune, Susana Alonso, Isabel Valeta, Irune Urribarren, Jon Garai, Izaskun Ezpeleta, Jaione, Gema Gonzalez, Josu**

**Galdos, ezezaguna. Zutik: ezezaguna, Xabier Letona, Julian Lezeta, ezezaguna, ezezaguna, Josu, Andreño Nerea Aranzeta, Jon Andueza, Josune Arriaran, Juan Garay, Jabier Ozaeta eta Joseba Berezibar.**

Argazkia Santa Barbara parkean aterata dago. Nerea Aranzeta andereñoa bere ikasleekin Santa Barbarara joan zen moduan, orduko San Andres Ikastolako beste bi andereñoek, Ana Mari Arana eta Maria Luisak, gauza bera egin zuten.

**PUB HAIZEA**



**ENARA** OSAGIRRIAK

Maalako Errabala , 21  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32





## ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Erre ke erre ari zara zure nahia bete arte. Lortuko duzu, bai, baina ez hala delako, emango duzun leloagatik baizik. Zeurearekin ateratzen ohituta zaude eta horrela jarraituko duzula ematen du.



## LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Idealizatu egingo dituzu egoerak eta gero konturatuko zara gauzak ez direla horrela. Gogor hartuko duzu jendea ondorioz. Hankak lurrean erabili itzazu. Maiteminduta zaude eta ez ote da hori sineskerietara bultzatzen zaituena?



## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Zure esperientziaren ondorengo emaitzak aditzera ematen pasatuko dituzu egunak. Gustora edukiko dituzu denak historia interesgarria daukazulako. Has zaitez kirolen bat egiten, egonean puztu egingo bait zara.



## TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

A zelako patxada izango duzun, Tauro! Bat baino gehiago aterako da bere onetik. Erabil ezazueztarria ondo estalia, katarroa harrapatzeko joera izango bait duzu. Esku artera datorikizuna gustora hartuko duzu.



## VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Ebitatu suarekin kontaktua, bonberoei deitu beharrea egotea suerta liteke eta. Aldrebes samar ibiliko zara urduritasunaren ondorioz. Ezertan hasi aurretik ondo pentsatu eman beharreko pausoak.



## CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Inbertsiotarako une aproposa duzu oraingoa. Honez gero hamaika buelta eman diezun proiektua gauzatzeko ordua da. Lagunak horretarako behar izango duzun bultzada emango dizu. Bete egingo zara gainera.



## GEMINI

Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Nahi duzuna eta egiten duzuna zeharo kontrakoak izango dira. Hau lantokian emango da batez ere. Hortik kanpo izango duzu, bai, hainbeste desira duzuna betetzeko aukera. Kontrolatu haserre.



## LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Ederetasunaren bi muturrak ondo bereizten dituzu eta ideia argi eta politak izango dituzu, artearekin zerikusia duten egin beharretan. Gustora egongo zara zure benetako bertutea gauzatzeko duzulako.



## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra


Sekulako burruka izango duzu kanpoarekiko. Saia zaitez honek zure barruan eraginik ez izaten, gaizki pasatzen duzu bestela eta. Atsegina zara zure izakeragatik eta hori da garrantzitsuena. Besteak hor jarraituko du.



## CANCER

Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra


Babeslearena egiten emango duzu denbora gehiena. Baliteke norbaitek purrustadaren bat botatzea zure jarreragatik. Urdailak hor dagoela adieraztea suerta liteke; ebitatu ardurak eta litxarreniak.



## SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Eguzkiak sekulako energia ematen dizu. Trote bizian ari zara ondorioz. Listoia pixka bat jaitsi beharko zenuke, errezagoa bait da behera etortzea gora jotzea baino. Kontrolatu finantzak.



## PISCIS

Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Atsedenerako ordua izango da, Piscis. Horrenbeste lan egiteak behar bada giro horretan bakarrik bizi izatera mugatzen zaitu. Egizu geldiune bat eta begiratu inguruan zer dagoen; ikusiko duzu zein atsegina den.

# HIRU

# UTILAJEAK

- **Doitasunezko mekanizazioak, plano eta langileen arabera**
- **Fresatzeko makinak**
- **Zenbakizko kontrola**
- **Mekanizazio-zentruak**
- **Tornuak**
- **Artezko makinak, etab.**

Zaldisper kalea, 10 (95. postakutxa)  
ARRASATE Telefaxa: 79 80 97  
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61

Goiain Industrialdea (24. postakutxa)  
01170 LEGUTIO Telefaxa: 45 54 74  
Tfnoak: (945) 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53

Lehengoan irakurri nuen egunkarian Madrileko Bake-Gailurrerako zein prestaketa ari ziren egiten. Eta atentzioa eman zidan kazetarietzako, hain zuzen, antolatzen ari ziren "tingladoak", IFEMA erakundearen 10. pabiloia Roneoren orubearen zabaltasunarekin pareka daiteke, pixkat estuagoa, hori bai, baina hiru solairurekin. Eta dena bete omen dute telebista, irrati eta egunkarietako langileentzako tramankulu, estudio, kamaera, kable, telefono eta halakoekin. Esate baterako, 1.000tik gorakoak dira Telefonikak sartu dituen lineak, eta ordenadore, fax eta azken orduko asmakizunak ez omen dira faltako. Munduko 2.000 milioi biztanlek (edo gehiagok?) ikusi, irakurri edo entzungo du bertatik aterako dena.

Zerk mugitzen du hainbeste jende eta baliabide planetaren puntu zehatz horretara? Informazioa emateko gogoak? Bai, baina... Ekialde Hurbileko balizko bakeak? Ez dut uste. Ez al dira izango informazioaren multinazionalen interes ezkutua eta besterik ez? Ez dakit, baina pentsarazi nahi dizut, irakurle, ni ere horretan ari naiz eta.

KOLDO RODRIGUEZ

## Bertsosaloa

ostegunean, 9.15etan

Datorren ostegunean, bertsosalo ederra ikusteko aukera izango duzue ATBn.

Ostiral honetan, hain zuzen, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren kanporaketa berri bat jokatu da Aretxabaletako Zاراia zineman.

Guk emanaldi hori grabatu, eta laburpen zabala eskainiko dizuegu.

Ez ahaztu. Ostegunean, 9.15etan, ATBn.

Ea ba, bertsozale hori, zain izango gaituzu.

## OHARRA:

Mondra-Gol, 9.15etan

Igande honetan ere ikusgai izango duzue Mondra-Gol saioa ATBn. Aurrerantzean, ordea, ordu laurden lehenago hasiko da, hau da, 9.15etan. Ez gero berandu heldu!!

# Telebelarri

◇ Guretzako Arrasate beti izan da bailara honetako kapitala"

Eli Galdos, Gipuzkoako Aldun Nagusiak, **Berriak** saioan.

## Programazioa

3

### IGANDEA

9.15etan, **Mondragol**. Mondra-Lagun Onak partidua-ren ordu erdiko laburpena.

4

### ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. ATBren albiste-emanaldia.  
9.15etan, **Mondra Sport**. Arrasateko Kirol-munduaren errebasua.

5

### ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Egunean zehar jasotako berriak.  
9.15. **Erreportaiak**. Aste honetan, batetik Pedro Jose Aranburuzabala, Zarautzeko hondartzan desagertutako arrasatearrari buruzko lan bat, eta ostiral honetan ospatuko den Domsantu egunari buruzko beste bat izango dituzue ikusgai.

6

### ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. ATBren albistegia.

7

### OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Albistegia.  
9.15. **Bertsosaloa**. Ostiral honetan Aretxabaletako Zاراia zineman jokatu den Gipuzkoako Bertsolari-Txapelketaren kanporaketari buruzko laburpen

8

### OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.  
9.15. **Erretratoa**. J.R. Elortzak zuzendutako elkarrizketa saioa. Gonbidatua: Elias Otero, Arrasateko mendigoizale eta sukaldari ezaguna.



**iKER**

**xey**



**SUKALDE-ERAKUSKETA:**

Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE